

XABIER LETONA

maltzagatik

Aoiz, Zubiaga eta Zalloren analisi zorrotzak

ESPAINIAKO VIENTO SUR aldizkari ezkertiarak ETaren historia hartu du gaitzat bere azaroko zenbakian eta berau jorratzeko, ezkerreko hiru euskal analisten ikuspegiak bildu ditu, hirurak arras interesgarri eta sakonak. Floren Aoiz, Mario Zubiaga eta Ramon Zallo.

Analisi luzeak dira eta ETaren historiarekin bat ezker abertzalearena ere miatzen dute, ezinbestekoa den bezala. ENAMen historiatik, egungo eta biharko ETA eta ezker abertzaleaz ere aritzen dira. Ondorengo lerroetan, batez ere etorkizun horri buruzko hausnarketei heldu diegu.

AOIZEK ENAM-EN erraietatik egiten du bere analisia. ETaren jardun eraldatzailea azpimarraren du funtsean, honek armekin –batez ere– edo gabe euskal gizartearen aldaketa handiak azkartzeko ahalmena izan delako eta duelako.

Bere tesi nagusia da, ETA eta ezker abertzaleko jardueren ondorioz nagusiki, eredu autonomikoak porrot egin duela Euskal Herrian eta horren erakusle dela euskal gizartearen gehiengoa nabarmen dela erabaki eskubidearen aldekoa.

“Haien eragin soziala indargabetzeko eta eszenatoki berrietara egiteko edozelako urrats saihesteko, azken hamar urteetan erakunde politiko independentzia zaleengana jo du errepresioak (...) Edozein eratan, kontuan hartu behar da errepresio andana hau, erreformaren krisi sakona eta bere ‘aterabide autonomikoa’-ren ondorio direla (...) Bitxa bada ere, ezker abertzaleak inoizko zailtasunik handienak ditu politika egiteko, baino inoiz ez ditu izan gaur egun adinako garaipen politiko.



Estatutuen defentsa inoiz baino ahulagoa da egun, gaur egun inoiz baino indar gehiago ari dira eskatzen euskal gizartearen erabaki eskubidea”.

Artikuluaren azken hausnarketak Altsasuko Adierazpenari egiten dio erreferentzia, berau aipatu barik, eta funtsean, ETak egoerak azkartzeko duen indarra baliatuz, une honetan Euskal Herrian gerta litekeen aldaketa historikoa azkartzeko lagundu beharko lukeela dio. Nola ez du esaten, baina Aoiz Altsasuko Adierazpena egin zen prentsaurrekoan izan zen eta han, Mitchel printzipioak medio, nahikoa esaten zen.

ZUBIAGAK ETaren 50 urteko bizi-tzaren analisi ideologiko-politiko zorrotza egiten du, ahalmen kritiko eta indargune teoriko sendoak dituela erakutsiz. ETA eta ezker abertzaleak Espainiaren garapen sozio-politikoaren baitan, sistemarekin bizi izan duten dialektika zorrotz aztertzen du. Etiken borroka mintzo da eta argi iritzi dio, lehia horretan Estatua eta sistemaren ikuspegia garaile atera dela gizartearen, “lehenik esparru espainiarrean, gero europarrean (Frantzia) eta azkenik euskal gizartearen”. Horren ondorioz, “ordena konstituzionalak bere defentsan erabiltzen zuen biolentzia justifikatzea

lortu du eta, aldiz, bere aurka erabilitako biolentziaren justifikazioa ahultzen ari da”.

Argi du Estatuak ezker abertzalea ezker mutur isolatura bultzatu nahi duela, eta Otegi, Diez eta enparauen atxilotetak hor kokatzen ditu. Ikuspegi errealistari ukitu utopikoa emanez, ezker abertzalearen erronka “diskurtso etiko berri bat eraikitzean” dagoela dio, modu horretan “erradikalizazio demokratikoaren hurrengo olatuaren oinarriak jartzeko”.

Eta azken ondorioa argia bezain tinkoa da: ezker abertzalearen helburuak berberak badira ere, bitartekoak ezin dira orain artekoak izan. Berak dioen bezala, “gaitza bezain ezinbestekoa da berrikuntza”.

ZALLOK ETaren azken su-etenaren analisi sakona egiten du. ETari leporatzen dio prozesuaren porrota eta, bere azken komunikatuetatik ondorioztatzen du ez dagoela irtenbiderik hark finkatzen dituen klabeetan, hau da, lurraldetasuna eta erabaki eskubidea bere izatea jokoan dagoen negoziazio batera lotzea. Batasunaren etorkizunari buruz tinkoa da: “Batasunak ez du ezeren lidergorik izango, euskal politikaren eragile garrantzitsuenetako baten –hots, ETaren– ekintzak baloratzeari uko egiten badio”. Bi hipotesi ENAMen etorkizunerako: gerta liteke ETA eta ezker abertzale historikoaren arteko desadostasun prozesu bat denboran luzatzea; eta gerta liteke biak berriz bat egitea ETaren klabeetan, eta hori “irrazionala izanik ere, ez litzateke lehen suizidio kolektiboa”.

Viento Sur aldizkariaren helbidea sarean (106. zkia):

<http://www.vientosur.info/>